

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ONARPEN PROZESUA BATXILERGOA

MAIZ EGITEN DIREN GALDEREI ERANTZUNAK

2022-2023 ikasturtea



AURKIBIDEA

1 Nork egin behar du onarpen-eskabidea?	2
2 Noiz egin behar da onarpen-eskabidea?	2
3 Nola bete daiteke onarpen-eskabidea?	3
4 Nola sartu eta zer behar dut Internet bidezko eskabidea egiteko?	4
5 Zenbat eskabide egin daitezke?.....	5
6 Eskabidearekin batera aurkezteko agiriak.....	6
7 Ikastetxea aukeratzeko askatasuna.....	8
8 Ikastetxean jarraitzea, hizkuntza-eredua aldatzeko eskatzekotan.....	8
9 Onarpen-eskabideak aldatzea eta kontsultatzea.....	8
10 Onarpen-eskabidearen baliozkotasuna eta frogagariak.....	10
11 Baremazioa	11
12 Nola egiten da plazen esleipena?.....	13
13 Informaziorako eta zerrendetarako sarbideari buruz.....	14

1 *Nork egin behar du onarpen-eskabidea?*

Nork egin behar du onarpen-eskabidea?

Batxilergoan onarpen-eskabidea egin behar du maila honetan ikasle bat eskolatu nahi duen orok, eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

1. Ikaslea lehenengo aldiz joatea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe batera, edo
2. Ikaslea lehendik ere EAEn eskolatua egotea, baina:
 - a. Ikastetxez aldatu nahi izatea, edo
 - b. Ikastetxez aldatzeko interesik ez baina une honetan eskolaturik dagoen ikastetxean hizkuntza-eredua aldatu nahi izatea. (Hala ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan hizkuntza-eredu batean eskolatutako ikasleek, ikastetxe horretan Batxilergoan ez badago hizkuntza-eredu hori, badute matrikulatzerik Batxilergoko 1. mailan euren ikastetxean izandako hizkuntza-ereduetan, eta ez dute egin behar horretarako eskatzen den onarpen-eskabiderik, Arte Batxilergoan matrikula egin nahi dutenek salbu), edo
 - c. Arte Batxilergoa ikasi nahi izatea. (2021-2022 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitutako ikasleek ikastetxe berean egin ahal izango dituzte Batxilergo ikasketak, onartzeko eskaera aurkeztu gabe, Arte Batxilergokoak salbu, aparteko ezaugarriak baitituzte ikasketa horiek).

Orain egiten ari naizen mailaren hurrengoa edo berbera eska dezaket era berean, gaindituko dudan ala errepikatuko dudan ustearen arabera?

Bai. Gaurko ikasturtean Batxilergoko 1. kurtsoa ikasten duen ikasleak 1. kurtsoan ala 2. kurtsoan onartzeko eskabidea aurkez dezake.

Guraso banandutakoen kasuan espezifikotasunaren bat al dago?

Eskabidea aurkezteko unean ikaslea adingabea bada, eta legez emantzipatua ez badago, ikastetxean onartzea edo beste batera lekualdatzea alde bakarretik gurasoetako bati eskatzea baimentzen dion epailearen sententziarik egon ezean, eskabidearen izapidea egiteko bi alderdien adostasuna beharrezkoa da. Desadostasunik egotekotan eskabidea ezin izango da tramitatu baimentzen duen epailearen sententzia eman arte.

2 *Noiz egin behar da onarpen-eskabidea?*

Zein da onarpen-eskabidea egiteko epea?

Martxoaren 28tik apirilaren 8ra, bi modu horietako batean:

- Aurrez aurre, Batxilergoa eskaintzen duen lehen aukerako ikastetxe publiko edo itunpekoan.
- Internet bidez, Hezkuntza saileko web orrialdean.

Ez da eskabiderik edo agiririk onartuko epe horren aurretik ez ondoren.



Zer ordutan egin daiteke onarpen-eskabidea?

Onarpen-eskabidea ordu hauetan egin daiteke:

1. ***Ikastetxeetan***, jendeari arreta eskaintzeko orduetan.
2. ***Internetez***, egunaren 24 orduetan.

Edonoiz alda ditzaket eskabideko datuak?

Eskatzaileek 2022ko apirilaren 8ra arte izango dute -egun hori barne- datu grabatuetakoren bat aldatzea edo zuzentzea eskatzeko. Egun horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik edo zuzenketarik.

Eskaera on-line egin bazuen, behin eskabideari alta emanda, eta hautatutako ikastetxeak eskabidea hartu arte, eskatzaileak aukera izango du grabatutako datuak aldatu edo zuzentzeko, informatika - aplikazio berberaren bitartez.

Eskaera ikastetxe aukeratuan egin bazuen edo on-line egin bazuen baina hautatutako ikastetxeak eskabidea hartu badu, eskabidea aldatu nahi duen eskatzaileak ikastetxe horretan eskatu behar ditu aldaketak.

Eskabideko datu berriak grabatzean ez da sekula aldatuko datuak estreinakoz grabatu ziren unean eskatzaileari ausaz esleitu zitzaion ordena-zenbakia.

3 Nola bete daiteke onarpen-eskabidea?

Zein bidetatik bete daiteke onarpen-eskabidea?

Onarpen-eskabidea 2 bidetatik egin daiteke:

1.- On-line, Hezkuntza Sailak horretarako prestatzen duen aplikazio informatikoaren bidez. Online eskabidea apirilaren 8ko 24:00etara arte aurkeztu ahal izango da; ordutik aurrera, aplikazioa ez da aktibo egongo. Aplikazioan sartzeko, «Ikasgunea» ataria (<https://ikasgunea.euskadi.eus>) erabili beharko da. **Gomendatutako nabigatzaileak Mozilla Firefox eta Google Chrome dira.**

Eskaera on-line egiten badu, pertsona interesdunak, eskabidearekin batera, beharrezkoak diren dokumentuak erantsiko ditu, bai derrigorrezkoak, bai baremazio-prozesuan puntuak egiaztatzen dituztenak.

2.- Lehen aukera moduan hautatutako ikastetxeko idazkaritzan. Bertan sartuko dira eskatzaileek eskabidean jarritako datuak.

Eskaera ikastetxe aukeratuan egiten badu, pertsona interesdunak aurkeztu beharko du bere NAN edo identifikazio-agiria eta datu eskatu guztiak eman. Datuok aplikazio informatikoan sartuko dituzte ikastetxe horretako langileek. Horrez gain, ikastetxe aukeratuan entregatu beharko ditu kasu kasu egoki diren agiri guztiak.



Eskabidea Internetez aurkezten badut, badut abantailaren bat?

Eskabidearen efektua bera da, baina eskatutako ikastetxeetara joatea saihestu dezakezu. Era berean, eskaneatuta, eskatutako dokumentazioa erantsi ahal izango duzu, bai nahitaezkoa, bai baremoaren puntuazioa lortzeko gehitu nahi duzuna.

Eskabidea presentzialki aurkezten badut, lehen aukera moduan eskatutako ikastetxean kudeaketa guztia egin dezaket?

Hori egin dezakezu baldin eta zure eskabidean ikastetxe horretarako eskariak soilik sartzen badituzu. Baina zure eskabidean ikastetxe bat baino gehiagorako eskariak sartzen badituzu, zure eskabidea lehenengo ikastetxean soilik osatu ahal izango duzu baldin eta eskatutako ikastetxea alde batera utzita ematen diren baremoko puntuak kontuan hartzea nahi baduzu (hau da, familiaren errenta, familia ugaria, familia-harrera, ezgaitasuna, espediente akademikoa) edo bizileku ala lantokiaren hurbiltasunagatik puntuak (hau da, ikastetxe bakoitzak errolatze-ziurtagiriaren arabera lehen aukeran hautatutako ikastetxean erregistratutako dokumentazioa kontuan izanik barematu ahal izango du, edo bere kasuan, aitaren edo amaren lantokia egiaztatzen duen enpresa-ziurtagiria).

Baina ikastetxe bat baino gehiago eskatzen da duzu eta ikastetxe bakoitzean, ikastetxean lan egiten edo ikasten duten senideengatik, kooperatibista izateagatik edota ikastetxe bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak ezarritako irizpideengatik ematen diren baremo-puntuetan sartu nahi baduzu, ziurtatu behar duzu eskatutako ikastetxe bakoitzean kasu bakoitzean eskatutako irizpidea betetzen dela; horretarako, hala behar denean, ikastetxe bakoitzean epe barruan beharrezko dokumentu egiaztatzailea entregatu behar izango duzu. Beste ikastetxeetako baremo espezifikorako dokumentazio hori entregatzeko, beharrezkoa da aurretik lehen aukerako ikastetxean eskabidea tramitatu izana.

Epez kanpo aurkeztu izango ahal dut dokumentazio gehigarria?

Ez. Epean nahitaezko dokumentazio guztia aurkezten ez badu, eskabidea osatu gabe geratuko da, eta ez da kontuan hartuko plazak esleitzerakoan. Bestalde, esleipenean ez dira kontuan hartuko epe barruan egiaztatu gabeko baremoko puntuak.

4 Nola sartu eta zer behar dut Internet bidezko eskabidea egiteko?

Zer behar dut Internet bidezko eskabide bat egiteko?

Familiaren gunea atarian erregistratuta egon behar zara.

Nondik sar naiteke eskabidera?

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> bidez. Hezkuntza Sailaren orri nagusian sustapen-banner bat aurkituko duzu (Post-It). Esteka honen bidez onarpen eskabidearen informazioa duen orrialdea ikusiko duzu. Orrialde honen "Eskabideak" atalean "Inskripzioa on-line" jartzen duen irudi bat aurkituko duzu, eta esteka berri horrek posta kontua eta pasahitzaren bidez, erabiltzailearen identifikatzeko orrira eramango zaitu.



Zer egin behar dut sarrerako pasahitza ahaztu bazait?

Pasahitza berria bidali. Sakatu “pasahitza ahaztu zait” esteka eta mezu berri bat jasoko duzu, pasahitz berriarekin.

Nola alda dezaket nire pasahitza?

Aldatu profila. Sartu ondoren, orrialdearen goian eta eskuinean (hizkuntza aldatzeko barraren goian), zure izena agertuko da. Zure izenaren gainean sakatzerakoan aukera hauek agertzen dira: Nire datuak aldatu eta Saioa itxi. Sakatu **Nire datuak aldatu**, sartu zure pasahitza berria eta sakatu aldatu botoia.

5 Zenbat eskabide egin daitezke?

Egin al daitezke ikasle berarentzat hainbat onarpen-eskabide hainbat ikastetxetan?

Ez. Onarpen-eskabidea edozein eratan eginik ere (Internetez edo ikastetxera joanda), ikasleko onarpen-eskabide bakarra egin daiteke. Bat baino gehiago aurkeztekotan, esleipenean ez da kontuan hartuko haietako bat ere ez.

Egin al daitezke Internet bidezko hainbat eskabide ikasle berarentzat?

Ez. Ikasleko Internet bidezko sarrera-eskabide bakarra egin daiteke.

Internet bidez hainbat posta-kontu erabiltzeak ez du esan nahi Internet bidezko hainbat eskabide egin daitezkeenik ikasle berarentzat.

Egin al daiteke Internetez eskabide bat eta ikastetxe batean beste bat, ikasle berarentzat?

Ez. Eskabide bat Internetez eginez gero, ezin da besterik egin, izena emateko eskabideak bakarra izan behar du.

Horrek esan nahi du ikastetxe bat soilik eska dezakedala?

Ez. Zure eskabidean hamabi eskari arte sar ditzakezu. Eskari bakoitza ikastetxea + Batxilergoko modalitatea + hizkuntza-eredua konbinazio ezberdin bat izango da.

Eskari ezberdinak eskatzeko ordenak ez du axola?

Bai axola du. Eskari ezberdinak zure lehentasunen arabera ordenatu behar dituzu, haietatik esleipenean ahalik eta hoberena ematen saiatuko baikara ordena horren arabera.

Internet bidezko eskatzaile batek sarrera-eskabide bat baino gehiago egin al dezake hainbat ikaslerentzat?

Bai. Internet bidezko eskatzaile batek eskabide bat edo gehiago egin ditzake, hainbat ikaslerenak badira.



6 Eskabidearekin batera aurkezteko agiriak

Zer agiri aurkeztu behar dira derrigorrez eskabidearekin batera?

Bai eskabidea Internet bidez egin bada bai ikastetxera joanda egin bada, agiri hauek aurkeztu behar dira hura gauzatzeko:

1. Ikaslearen NANaren fotokopia (atzerritarren kasuan AITa).
2. Hezkuntza premia berezien galdetegia, eskabidean egoera hori aipatzen bada.
3. Horrela bada, musika- edo dantza-ikasketa arautuak aldi berean ikasten ari dela edo errendimendu handiko kirol-programa egiten ari dela egiaztatzeko agiria. ((Ez da beharrezkoa ematea, baldin eta EAEko Musikako irakaskuntza arautuko ikastetxean matrikulatuta badago eta matrikula hori Hezkuntza Sailaren aplikazioan erregistratuta badago).

Derrigorrezko dokumentuak, ikaslea adingabea bada:

1. Familia-liburuan ikaslea azaltzen den orriaren fotokopia edo beste egiaztapen ofiziala. Ikaslea familia-harreraren egoeran badago, dokumentu horren ordez ikaslea familia-harreraren egotearen ziurtagiria aurkeztuko da.
2. Familia-liburuaren aita edo ama azaltzen den orriaren fotokopia, edo lege-tutorea izatearen ziurtagiria.
3. Eskabidea egiten duen lagunaren NANaren edo AIZren fotokopia: aitarena edo amarena, edo legezko tutorearena.
4. Hezkuntza Sailak ezarritako berezko protokoloa bete izanaren agiria (ezkontide ohiaren baimen-idazkia, ebazpen judiziala edo behin-behineko neurria, etab.), familia banandua edo dibortziatua bada.

Baremazioan puntuak eman ahal izateko, zer ziurtagiri aurkeztu behar dira eskabidearekin batera?

Ikastetxe batek eskabideak baino plaza gutxiago baditu, lehentasunak erabaki beharko ditu hainbat irizpideren arabera. Puntuazioa eskuratzeko, baldintzak betetzearen ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskatzaileak adierazitakoaren arabera, honako hauek izan daitezke agiriak:

- a) Ikaslearen anai-arrebaren batek eskatutako Ikastetxean edo atxikitako zentzoren batean ikasten duela ziurtatzen duen agiria.
- b) Bizilekuaren hurbiltasuna
 1. Familia helbidearen erroldagiria Udalak egina, hiru hilabeteko antzintasuna izango duena, gehienez ere.
 2. Ikaslearen lantegiaren ziurtagiria edo, ikaslea adingabea bada, bere aita / ama / lege-tutorearena.
- c) Familiaren Urteko Errenta:



1. Ikaslearen anai-arreba adingabeei dagozkien familia-liburuko orrien fotokopia edo beste egiaztagiri ofiziala.
2. EAetik kanpo aurkeztua bada, 2020ko Errenta aitortpenaren kopia.
- d) Ikaslearen aitak, amak edo lege-tutoreak eskatutako ikastetxean edo atxikitako zentzoren batean lan egiten duela ziurtatzen duen agiria.
- e) Elbarritasuna:
 1. Ikaslearen elbarritasunaren ziurtagiria
 2. Ikaslearen aita, ama, lege-tutorea edo anai-arrebaren elbarritasunaren ziurtagiria
- f) Kide Ugariko Familia izatearen ziurtagiria (dokumentu hau EAetik kanpo bizi diren pertsonak bakarrik aurkeztuko dute).
- g) Guraso bakarreko familiakoa dela egiaztatzen duen dokumentazioa
- h) Ikaslea familia-harreraren egotearen ziurtagiria
- i) Erditze anizkoitzaren jaiotza egiaztatzen duen dokumentazioa
- j) Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak erabakitako irizpideak bete izanaren ziurtagiria/k.
- k) Eskatutako ikastetxeko bazkide kooperatibista izatearen ziurtagiria.
- l) Espediente akademikoa
- m)
 1. Genero-indarkeriaren biktima dela egiaztatzen duen dokumentazioa
 2. Terrorismoaren biktima dela egiaztatzen duen dokumentazioa

¿ Non aurkeztu behar dut dokumentazioa?

1. Eskara internet bidez egin bada, eskaeraren dokumentazioa internet bidez erantsi beharko da. Pdf edo jpg erabiltzea gomendatzen da. Hala ere, hurrengo formatoak ere onartzen dira: .bmp, .doc, .docx, .jpeg, .png, .ppt, .pptx, .txt, .xls, .xlsx, .zip, .rar, .odt, .odp, .ods, .tif, .tiff. Aplikazioa ondo ibiltzeko 2 MB baino tamaina handiagoko fitxategiak ez igotzea gomendatzen da.
2. Eskara aurrez aurre aurkeztu baduzu, lehen aukerako ikastetxean entregatu behar izango duzu derrigorrezko dokumentazioa eta eskatutako ikastetxea alde batera utzita ematen diren baremoko puntuak egiaztatzeko dokumentazioa (hau da, familiaren errenta, familia ugaria, familia-harrera, ezgaitasuna) edo bizileku ala lantokiaren hurbiltasunagatiko puntuak.

Gainera, eskatutako ikastetxe bakoitzean, ikastetxean lan egiten edo ikasten duten senideengatik, kooperatibista izateagatik edota ikastetxe bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak ezarritako irizpideengatik ematen diren baremo-puntuak egiaztatzeko dokumentazioa entregatu behar izango duzu.

7 Ikastetxea aukeratzeko askatasuna

Eskabide bakar batean aukeratu al daitezke ikaslea eskolatzeko hainbat ikastetxe?

Bai. Eskatzaileak egin ditzake, gehienez ere, 24 eskaera. Eskaera bakoitzean zehaztu beharko dira ikastetxea, ikasturtea, batxilergo mota eta hizkuntza-eredua.

***Edozein hizkuntza-eredu eskatu al daiteke edozein ikastetxetan?***

Onarpen-eskubidearen izapidea edozein eratan hasita ere (Internetez edo ikastetxera joanda), eskatzaileak eska dezake ikaslea erreferentziazko edozein hizkuntza-eredutan eskolatzea, (A, B eta D), ikastetxeak halakorik eskaini ez arren.

8 Ikastetxean jarraitzea, hizkuntza-eredua aldatzeko eskatzekotan

Ikasle bat ikastetxe batean dabil eta ikastetxe horretako hizkuntza-eredua aldatzeko eskatu du. Ba al du bermerik eta/edo eskubiderik ikastetxe horretan jarraitzeko eskatutako hizkuntza-ereduan?

Ez. Kasu horretan, nahiz eta ikastetxean eskolaturik egon, onarpen-eskabidea egin behar da, eta berak bezalako sarrera-baldintzak izango ditu ikastetxean eskabidea egin duen edozein ikasleak, edonondik datorrela ere. Hezkuntza-etapa aldatzen denean, ordea, (hau da, DBHko 4. mailatik Batxilergoko 1. mailara) atxikitako ikastetxeetatik datozen ikasleekin bezalaxe jokatu da. Beste aldetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan hizkuntza-eredu batean eskolatutako ikasleek, ikastetxe horretan Batxilergoan ez badago hizkuntza-eredu hori, badute matrikulatzerik Batxilergoko 1. mailan euren ikastetxean izandako hizkuntza-ereduetan, eta ez dute egin behar horretarako eskatzen den onarpen-eskabiderik, Arte Batxilergoan matrikula egin nahi dutenek salbu.

9 Onarpen-eskabideak aldatzea eta kontsultatzea

Erabiltzaile batek Internet bidez eskaera egin badu, edozein momentutan alda ditzake eskaera egiterakoan sartutako datuak?

Ez. Internet bidez sartutako **datuak aldatu eta ezabatu** ahal dira, bakarrik lehenbizi eskatutako ikastetxeak eskaera **kudeatzen eta balidatzen ez** duen bitartean. Momentu honetatik aurrera, eskatzaileak bakarrik zuzendu dezake Internet bidez erantsitako dokumentazioa ikastetxeak beharrezkoa ikusten badu.

Era berean, lehen aukerako ikastetxea eskaera kudeatu eta balidatzen hasi bada, eta eskatzaileak balidatua izan den atalen bat aldatu nahi badu edo dokumentazio berria gehitu, aurrez aurre egin beharko du ikastetxean bertan.

Nola jakin dezaket interneteko eskaera bat zein egoeratan dagoen edo ikastetxeak eskaera jaso duen?

Internet bidezko eskaeran sartzerakoan zein egoeratan dagoen agertuko da.

Internet bidez egindako eskaera hurrengo egoeretatik igaroko da:



1. Ikastetxera bidaltzeko zain: egoera honetan eskatzailea eskaeraren edozein informazio alda dezake, baita ezabatu ere.
2. Bidalita: eskatzaileak eskaera ikastetxera bidali du.
3. Aztertzen: ikastetxea eskaera kudeatzen hasi da, eskatzaileak ezin izango du bere eskaera aldatu.
4. Dokumentazioaren zain: Ikastetxeak eskaera birpasatu du eta eskatzaileak erantsi duen derrigorrezko dokumentazioa zuzendu egin behar du.
5. Osatua: Ikastetxeak eskaera birpasatu du eta dokumentazio guztia zuzena da.
6. Osatua, ikastetxeak baremazorako dokumentazioa balidatzeko zain: ikastetxeak eskaera balidatu du. Derrigorrezko dokumentazioa zuzena da baina ikastetxeak oraindik ez du balidatu baremazio-irizpideak balidatzeko dokumentazioa.
7. Osatua, hiritarrak baremazorako dokumentazioa zuzentzeko zain. Ikastetxeak eskaera birpasatu du, derrigorrezko dokumentazio guztia zuzena da baina baremazio-irizpideak balidatzeko dokumenturen bat zuzendu behar du.

Nola jakin dezaket internet bidez bidalitako dokumentazioa zuzena den?

Lehenbizi eskatutako ikastetxeak eskaera birpasatuko du eta ikusten badu bidalitako dokumentazioa ez dela zuzena, eskatzaileak e-mail bat jasoko du. Bertan adieraziko zaio dokumentazioa zuzentzea derrigorrezkoa dela.

Nola alda eta zuzendu dezaket internet bidez erantsitako dokumentazioa?

Bidalitako dokumentazioa aldatzeko, dokumentura sartu eta oharrak zutabean agertzen diren ekintzak kontsultatu.

Dokumentazioa zuzendu ondoren, "Ikastetxera bidali" botoia sakatu eta lehen aukerako ikastetxeak bere kudeaketa jarraituko du.

Internet bidez hasitako eskaera bat ezaba dezaket behin lehenbizi eskatutako ikastetxeak eskaera horren kudeaketa hasi badu?

Ez. Behin ikastetxeak interneteko eskaeraren kudeaketarekin hasi bada, baja emateko lehen aukerako ikastetxera joan beharko du eta bertan baja emateko eskatu.

***Erabiltzaile batek eskura al ditzake beste erabiltzaile batek egindako eskabideak?***

Ez. Erabiltzaile bakoitzak berak egindako eskabideak bakarrik eskura ditzake, eta inoiz ezingo ditu eskuratu besteren eskabideak.

Ikastetxeetara joanda egindako eskabideak kontsulta al daitezke Internet bidez?

Bai. Ikasleen tutoreek Internet bidez kontsulta ditzakete ikastetxean aurkeztutako eskabideak.

Zer behar dut eskabide baten datuak aldatu ahal izateko?

Eskabidea ikastetxean bertan egin bada, aldaketa eginez gero, eskabidearen frogagiri originala sinatuta eta zigilatuta jaso aurretik, ez da beste agiririk beharko eskabideko ez gain. Beraz, eskabidea alda daiteke berriro ikastetxera joanda.

Aldaketa egiten bada, eskatzaileak frogagiri originala sinatuta eta zigilatuta jaso ondoren, nahitaez aurkeztu behar da. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren beste datu-orri bat emango da, sinatuta eta zigilatuta; orduan zaharra apurtu, eta datu berriak baliozkotuko dira.

Eskabidea internet bidez egin bada, aldaketak ikastetxeak eskaera izapidetu baino lehenago egin behar dira. Ondoren ikastetxeak eskatutako aldaketak bakarrik egin ahal izango dira. Ikastetxeak balidatutako atalen bat aldatu nahi izanez gero edota dokumentazioa berria gehitu, aurrez aurre egin beharko da ikastetxean bertan.

10 Onarpen-eskabidearen baliozkotasuna eta frogagiriak

Internetez edo ikastetxera joanda egindako onarpen-eskabide batek balio al du derrigorrezko agiriak aurkeztu gabe?

Ez. Onarpen-eskabidearen izapidea Internetez hasi nahiz ikastetxera joanda hasi, eskabide bat baliozkoa izateko beharrezkoa da:

- Ikastetxera joanda egin bada, eskaera bat ez da zuzena izango hurrengo egoeretan:

1. Derrigorrezko agiriak ikastetxean aurkeztu ez badira.
2. Ikastetxeak ikastetxearen zigiluarekin eta eskatzaileak sinatutako eskabidearen frogagiria jaulki ez badu.

- Internet bidez egindako eskaeretan, eskaera bat ez da zuzena izango hurrengo egoeran:

Ikastetxeak ez badu derrigorrezko dokumentazio guztia balidatu. Ikastetxeak eskaera baten derrigorrezko dokumentazioa birpasatu eta balidatu badu, eskaera hurrengo egoera batean



egongo da: Osatua; Osatua baina baremaziorako dokumentazioa balidatzeko zain edo Osatua baina baremaziorako dokumentazioa zuzentzeko zain.

Noiznahi kontsultatu edota inprimatu al daiteke Internetez egindako eskabidearen zirriborroa?

Bai. Erabiltzaileak noiznahi kontsultatu eta inprima dezake Internetez egindako eskabidea.

Ikastetxeak eskaera balidatzen ez duen bitartean, inprimakia **zirriborrotzat** hartuko da eta inprimaki horrek ur-marka bat izango du.

Eskaerak derrigorrezko dokumentazio guztia balidatuta badauka eta ez bada zuzendu behar, internet bidez lortutako eskaeraren inprimakiak, ikastetxeak emandako frogagiriaren balio bera izango du. Kasu honetan, eskaeraren inprimakian **berdinketa-hauste zenbaki** bat agertuko da.

Eskatzaileari beti ematen al zaio onarpen-eskabidearen frogagiria?

Internet bidezko eskabidea denean, eskatzaileak eskaeraren frogagiria eskuratu ahal izango du, **ikastetxeak dokumentazioa balidatu duenean eta dokumentazioa zuzentzat jo duenean**. Bitartean, sistemak aukera ematen du eskabidearen zirriborro bat pdfn eskuratzeko. Inprimakiak, legeko baliorik gabea, ur-marka izango du idatzita.

Ikastetxera joanda egin bada eskabidea, **frogagiria soilik emango da** amaitzean, hau da, derrigorrezko agiriak eramandakoan.

Nola ziurta dezaket ongi egin dudala onarpen-eskabidea?

Aurrez aurre egindakoetan, eskatzaileak onarpen-eskabidea ongi egin duela ziurtatzeko, **ikastetxeak emandako kopia eduki behar du, ikastetxearen zigiluarekin eta eskatzaileak sinatuta**.

Internet bidezko eskabidea denean, eskatzaileak ziurta dezake bere onarpen-eskabideak balio duela **eskaerak** ("zirriborroa" hitzarekin ur-markarik gabe) **matrikula zenbakia eta berdinketa hausteko zenbakia baditu**.

11 Baremazioa

Zer da baremazioa?

Ikastetxe bateko maila, modalitate eta hizkuntza-eredu baterako dauden eskabideak gehiago direnean eskainitako plazak baino, ikastetxeak eskabideen baremazioa (puntuazioa) egin behar du, lehentasunak erabakitzeko. Kasu horretan, eskabide bakoitzaren atal eta azpiatal guztiak barematu behar dira.



Nola lehenetsi eskabideak?

Eskaerak barematzeko, kontuan hartu behar dira irizpide hauek:

Lehenengo eta behin, ikastetxeari atxikitako ikastetxeetako ikasleen onarpen-eskabideak sailkatuko dira lehen multzo batean, eta gainerako eskabideak bigarren multzo batean.

Lehenengo taldeko eskabideek beti izango dute lehentasuna bigarren taldeko eskabideen aurrean, Arte Batxilergorako salbu, aparteko ezaugarriak baitituzte ikasketa horiek.

Aipatutako bi talde horietako bakoitzaren barruan, eskabideak ordenatuko dira lortutako puntuazioaren arabera eta, berdinketa badago, baremoko irizpideetan lortutako puntuaziorik handiena hartuko da kontuan, banaka eta ordena honetan konparatuta:

- Puntu gehien lortu duena eskatutako ikastetxean senide bat edo gehiago izatearen apartatua.
- Puntu gehien lortu duena apartatu honetan: ikaslearen bizilekuaren gertutasuna, edo eskatzailearen beraren lantokiarena, edo haren aita, ama edo legezko tutorearen lantokiaren gertutasuna.
- Puntu gehien duena familia-unitatearen urteko errentaren apartatua.
- Puntu gehien lortu duena eskatutako ikastetxean lan egiten duten familiakoen apartatua.
- Puntu gehien lortu duena apartatu honetan: ikasleak desgaitasun bat izatea edo desgaitasuna ikaslearen aitak, amak, legezko tutoreak edo anai-arrebaren batek izatea.
- Puntu gehien lortu duena familia ugariaren apartatua.
- Puntu gehien lortu duena guraso bakarreko familiako ikasle apartatua.
- Puntu gehien lortu duena apartatu honetan: ikasle eskatzailea familia-harreraren egotea.
- Puntu gehien lortu duena erditze anizkoitzean jaiotako ikasle apartatua.
- Puntu gehien lortu duena eskola-kontseiluak edo ikastetxeko ordezkariak organo gorenak askatasun osoz zehaztutako irizpideen apartatua.
- Puntu gehien lortu duena ikastetxeko kooperatiba-bazkide izatearen apartatua.
- Puntu gehien lortu duena espediente akademikoaren apartatua.
- Puntu gehien lortu duena genero-indarkeriaren biktima apartatua.
- Puntu gehien lortu duena terrorismoaren biktima apartatua.

Antolamendu honen arabera, Hezkuntza Saileko aplikazio informatikoak adieraziko du zein pertsonak duen plazak okupatzeko eskubide handiena. Horretarako, ikastetxe, maila, mota eta hizkuntza-eredu konbinazio bakoitzerako jasotako eskabide guztiak izango ditu kontuan, lortutako puntuazioaren arabera.



Zer da berdinketa hausteko zenbakia?

Irizpide horiek ezarri ondoren ere berdinketarik badago, eskabide bakoitzari ausaz emandako ordena zenbakiaren arabera ordenatuko dira, handienetik txikienera. Familia berekoak ikastetxe berera joan ahal izatea ez oztopatzeko, bi neba-arreba hezkuntza-maila berean daudenean eta baremo-puntuazio bera dutenean, ausazko prozeduran emaitza okerrean lortu duen neba-arreba emaitza onena atera duenaren ondoan jarriko da zerrendan, hurrengo postuan.

Berdinketa hausteko zenbakia aldatzen al da eskabide bat aldatzean?

Ez. Behin emanaz gero (baliozko eskabide bat osatu eta lortu ondoren), berdinketa hausteko zenbakia lehengoa izango da, gerora eskabidea aldatuta ere.

Gertatu al daiteke eskabide bik edo gehiagok puntuazio berdina eduki eta sistema informatikoak berdinketa hausteko zenbaki bera ematea?

Ez. Kontuan hartuz ikastetxe bakoitzeko eskabideen kopurua, berdinketa hausteko zenbakiaren konbinazioak, irizpide guztiak eta baremazioko puntuak, ezinezkoa da ikastetxe bereko bi eskabidek puntuazio bera eduki eta berdinketa hausteko zenbaki bera jasotzea.

Eskatzaileari noiz eta zergatik eskatzen zaio errentaren datuak egiaztatzeko baimena?

Hala eskatzen da eskatzaileak dioenean familia-unitateak 13.300,00 eurotik beherako sarrerak dituela. Hori gertatzen denean, eta egia dela berrestearren, eskatzaileari baimena eskatzen zaio Hezkuntza Saila Foru Ogasunarekin harremanean jarri eta hala dela egiaztatzeko.

Zer gertatzen da ez badut errentaren datuak egiaztatzeko baimenik ematen?

Ez da punturik emango irizpide horrengatik, nahiz eta eskatzaileak adierazi familia-unitatearen errenta 13.300,00 eurotik beherakoa dela.

12 Nola egiten da plazen esleipena?

Nola egingo da esleipena?

Hezkuntza Sailak esleipen orokorra egingo du, eta horren arabera esleituko dira plaza eskuragarriak. Esleipen horretan, jasotako eskaera guztiak aztertuko dira, ikastetxe, kurtso, modalitate eta hizkuntza-ereduen konbinazio guztietan, eta baremoaren irizpideen arabera ordenatuko dira. Gehienez plaza bat esleituko da eskatzaile bakoitzeko, eskabidean agertzen diren eskaeren ordena errespetatuz.

***Plaza bat baino gehiago esleai diezadakete?***

Ez. Esleipena bakarra eta globala izango da eta pertsona bakoitzari plaza bakarra soilik esleitu ahal izango zaio.

Plaza bat esleituko didatela ziurtasuna daukat?

Ez. Plaza bat esleituko zaizu baldin eta gutxienez zure eskarietako batean plaza gehiago badaude zure puntuazio bera duten eskariak baino.

Zer gertatzen da ikaslea ez bada onartzen eskatutako ikastetxe bakar batean ere?

Irakaskuntza ez derrigorrezkoa izateagatik, Administrazioak ez dio eskatzaileari Batxilergoa ikasteko ikastetxerik esleituko. Eskatzaileak, nahi izatekotan, irakaskuntza hori ikasteko ikastetxe bat bilatu ahal izango du.

Seme edo alaba bat baino gehiagorentzat eskabidea aurkezten badut, haietako bati plaza esleitzen bazaio bestea automatikoki onartua izateko bermerik al dut?

Ez. Onarpen-prozesuak banakako eskabideei erantzuten die eta pertsona baten eskubideak ezin zaizkio beste bati transferitu. Horrela, familia bereko bi kide bananduta gera daitezke onarpen-prozesuaren ondorioz: pertsona batek onarpena lor dezake eta besteak ez; edo biak onartuak izan daitezke, baina ikastetxe ezberdinetan.

13 Informaziorako eta zerrendetarako sarbideari buruz

Non kontsulta dezaket ikastetxe ezberdinetan hurbiltasunagatik dagokidan puntuazioa?

Ikasgunean, Interneteko familientzako Hezkuntza Sailaren atalean (<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>), bilatzaile bat daukazu informazio hori lortzeko ("Helbidearen hurbiltasunak emandako puntuak").

Non kontsultatu ahal izango ditut eskatzaileen eta onarpenen zerrendak?

Onarpen- eta matrikulazio-egutegian aurreikusitako zerrenda osoak, pertsona batek eskatutako plazei buruzkoak, pertsona horrentzako argitaratuko dira Hezkuntza Sailaren atarian, Internet Ikasgunean (<https://ikasgunea.euskadi.eus>). Ikastetxeek zerrenda horietarako sarbidea emango diete eskatzaileei.



Barematu behar izan denetan, eskatzaileek beren guztizko puntuaziora eta banakatura sarbidea izango dute, baita eskatutako plazetarako puntuazio bera edo handiagoa lortu duten eskatzaileenetara ere.

Hori horrela izan arren, bereziki babestu beharreko datu pertsonalak biltzen dituzten baremazio-irizpideak kontzeptu berean taldekatuko dira.